

han-hemen

Hondurasko presidentea 1957ko autoan joango da inbestidura saiora

Hondurasko jarduneko presidentea, Ricardo Maduro, 1957. urteko Chevrolet markako auto batean joango da Tegucigalpa hiriburuan egingo den inbestidura saiora, hilaren 27an. Autoa bildumazale batena da, eta egunotan konpontzen ari dira. Inbestidura saioa hiriko estadio nagusian egingo da, eta atletismo pistara autoz sartuko da Maduro. Harmailak Hondurasko banderaren koloreekin margotu dituzte, zuri-urdinez.

Jean-Paul Guerlain perfume egilea erretiratu egin da

Jean-Paul Guerlain perfume egilea erretiratu egin da, 65 urte bete orduko erretiroa hartu du eta. Guerlain etxea 1828an hasi zen perfumeak egiten, eta Jean-Paul Guerlain laugarren belaunaldikoa da. Oraindik ez dute argitu zeinek hartuko duen Guerlainen lekua, baina, dirudienez, haren laguntzaileak hartuko du, Mathilde Laurentek. Jean-Paul Guerlain 1959an hasi zen etxe horretan lanean.

Hogei urteko alemaniar bat Kafearen Nazioarteko Erregina

Katharina Berndt 20 urteko alemaniarra hautatu dute Kafearen Nazioarteko Erregin, asteburuan Kolonbian egin zen ekitaldi batean. Ekitaldia Manizales hiriko antzoki batean egin zen. «Kolonbia asko maite dut, eta baita Ko-



ADALBERTO ROQUE / EFE

Hemingwayren kapitaina hil da

Gregorio Fuentes herenegun hil zen. Hemingwayk 1940tik 1950era erabili zuen ontzia gidatu zuen Fuentesek. Diotenez, idazleak 'The Old Man and the Sea' obrarako sortutako pertsonaia Fuentesengan oinarritu zuen. Argazkia azarokoa da, 104 urte bete zituen eguneko.



STR / AFP

Hori da arrain zopa, hori!

Sukaldari bat eltze erraldoi bat berotzen ageri da alboko argazkian, Belgraden —2,5 metroko zabalera dauka eltzeak—. Munduko arrain zopa handiena egin zuten igandean, 1.700 kilo arrain erabiliz horretarako.



STR / AP

Munduko historia aurpegietan margotu dute Errusiako arte eskola bateko ikasleek

Moskuko arte eskolako bi gazte aurpegia margotuta ageri dira argazkian. *Munduko historia aurpegietan* izeneko arte lehiaketa antolatu dute eskola horretan. Argazkiko biek Txinako historia margotu dute euren aurpegietan.

lonbiako kafea ere», esan zuen Berdtek saria hartzean, espainolez.

landare hori zaintzen eta lantzen. Duela 1.000 urte inguru hasi ziren tea esportatzen.

Tearen munduko museorik handiena egin dute Txinan

Txinako edari tradizionalari, teari, museo izugarria egin diote Txinako Fujian herrialdeko Zhangpu herrian. Museoak 8.000 metro koadro dauzka, eta teari buruzko informazioa, historia, aholkuak, artea eta abar erakutsiko dituzte tearen munduko museorik handienak. Duela 6.000 urte inguru sortu zen te landarea, Txinan, eta gizakia duela 2.000 urte inguru hasi zen


Hiru jaguarrentzat etxe bila dabilta Brasilen

Amazonian hiru jaguar etxe batean abandonatuta aurkitu zituzten duela gutxi, Rio inguruan. Orain jaguar horientzat etxe bila omen dabilta, baina hango zoologikoek ez dituzte hartu nahi. Janari asko jaten dute animalia horiek —jatordu bakoitzeko 15na kilo—, eta, zoologikoetako arduradunen arabera, «animalia horiek mantentzea garestia da».

hilberriak

ESKELAK

Gaueko 9ak arte hartzen dira



(0034) 943 300 222



Agustin Goenaga Arteaga

JAUNA

“Xagu”

(Maria Luisa Zabalaren alarguna)

2002ko urtarrilaren 13an, Donostian hil zen, 89 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Goian Bego —

Bere seme-alabak: Agustin eta Josune Oregi; biloba: Ainhize; anaia: Miguel Goenaga (Jesuitarra); koinatak: Juanita Zabala (Iturrizaren alarguna), Ignacio Zabala eta Amparo Trueba; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte **GAUR, ASTEARTEA**, arratsaldeko **SEI TERDIETAN**, Donostiako **ARTZAI ONAREN** parroki elizan egingo diren hiletara. Aldez aurretik mila esker.

Helbidea: Urbietta 56 – 4.

Oharra: Gorputz-laguntza famili artean izango da.

Donostian, 2002ko urtarrilaren 15ean